

Dirua hainbat lekuetatik lortzeko nahia daukagu: Lehenik eta behin, enpresarekin hasi ahal izateko, mailegu bat eskatuko dugu, diru gutxi daukagulako eta autonomoak garelako, nahiz eta, enpresa sortu ahal izateko gure aurrezkiak erabiliko ditugun. Hori gutxi balitz, Espainia mailan, gu bezalako gazteentzat diru-laguntzak ematen ditu, eta guri "Gure ekintzaileen ildoak" 25.000 eta 75.000 euro artean emango digute, bermerik gabe, 40 urtera arteko gazteek bultzatutako enpresa-proiektuak abian jartzen laguntzeko. Edonola, estatuak horrelako ekimenak dituzten gaztetxeentzat dirua ematen diete, proiektuarekin aurre jarraitu ahal izateko, eta ekimena alde batera ez uzteko. Gazte askok proiektuarekin denbora gutxi ematen dutelako orokorrean.

Gainera, gure eskaintza egitean, bezeroak beraien landareak gurekin uzten dituztenean, dirua eman behar digute, hori baita, gure finantzaketa iturri nagusia. Lortzen dugun dirua, lankideentzat izango da noski, hori izango da hilean kobratuko dugun diru kopurua. Baina, behar ditugun gauza guztiak diru horreki ere ordaindu beharko ditugu, horretarako, gure enpresa ekonomikoki ondo joan behar da, bestela ezin izango dugu guztia hau ordaindu ezta guk dirua lortu ere ez.